

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

XII Lehiaren Defentsarako Estatuko Jardunaldiak egingen dira Iruñean apirilaren 4 eta 5ean

Gaian adituak diren erkidegoetako eta estatuko arduradunek hartuko dute parte Baluartean, ekintza irizpideak koordinatu eta eguneratzeko

Astelehena, 2019.eko martxoak 18

Datorren apirilaren 4 eta 5ean XII Lehiaren Defentsarako Estatuko Jardunaldiak egingen dira Iruñean, gaian adituak diren erkidegoetako eta estatuko arduradunen parte hartzearekin, zein Zuzenbide, Ekonomia eta unibertsitateetako adituekin, ekintza irizpideak eta esperientziak partekatuzko.

Jardunaldietan jada ehun pertsonak eman dute izena, interesdunek oraindik ere izena eman dezakete [honako loturan](#). Jardunaldiei hasiera emanen

diote José María Marín, Lehia eta Merkatuen Nazioko Komisioko presidentea; Maitena Ezkutari, Turismo eta Merkataritza zuzendari orokorrak; eta César López Dios Nafarroako Gobernuko Lehia zuzendariak.

Hala, irekiera hitzaldian, Marisa Tierno Centella, Europako Komisioko Lehia zuzendariak, “Coyuntura actual y desafío para las autoridades de competencia en un mundo cambiante, tecnológico y global” gaia izango du hizpide.

Lehendabiziko jardunaldian halaber bi mahai inguru egingen dira. Lehendabizikoa hiriko garraioen arautegiari buruz izango da: taxiak eta VTC. Mahai ingurua Alba Urresola, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakariak gidatuko du eta bertan, MLAB Abokatuen Rafael Allendesalazar; Cuatrecasas bulegoko Cani Fernández; eta Joaquín López Vallés MLBNko Sustapen Departamentuko zuzendariak hartuko dute parte. Bigarren inguruak “Teknologia berriak eta lehia” gaia izango dute jomugan eta Francisco Hernández Rodríguez, Galiziako Lehia Komisioko presidentea gidaturik, Beatriz de Guindos, MLBNko Lehia Departamentuko zuzendariak; Antonio Robles Carlos III Unibertsitateko adituak; eta Pablo García Bringas, Deustuko Unibertsitateko kideak hartuko dute parte.



Bigarren jardunaldian eztabaida mahaia egingen da “Lehia eta Konpetentzia Publikoa” gaiaren inguruan. Marc Realp, Lehiaren Kataluinako Agintaritzaren zuzendari orokorrak gidatuko du. Bertan parte hartuko dute, Pilar Canedo MLBNko bokalak; Javier Serrano Chamizo, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko kideak; eta Javier Vázquez, kontratazio publikoan espezialista den jurista eta kontsultoreak. Azkeneko hitzaldia Clotilde de la Higuera, MLBNko kontseilariak eskainiko du.

Jardunaldien aurretik, apirilaren 3an, MLBNko, Nafarroako Gobernu Kontsumo eta Arbitraje zerbitzuko lan talde ezberdinak bilduko dira, Nafarroako Lehia Agintaritzan.

Estatuko Lehia Kontseiluak Nafarroari XII jardunaldiak antolatzea eskaini zion, 2018an topaketen gunen izan